

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Imotz*



Aurkibidea

# Udalerria: Imotz

## Sarrera



Imotz Nafarroako udalerria da, Iruñeko merindadean kokatua. Herriaren udalerrri mugakideak hauek dira: Basaburua, Ultzama (iparraldean), Atetz (ekialdean), Txulapain, Itza (hegoaldean), Arakil eta Larraun (mendebaldean). Ondoko herri hauek osatzen dute Imozko udalerria: Etxaleku (herriburua), Eraso, Goldaratz, Latasa, Muskitz, Oskotz, Urritza eta Zarrantz. Latasan eta Urritzan aspaldi hasi zen gaztelania nagusitzen, baina gainontzeko herrietan (Goldaratz eta Etxalekun, bereziki), euskara izan da eta da nagusi.

- **Biztanleak:** 440
- **Euskaldunak:** %72,4

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **8**
- Zintak: **11**
- Pasarteak: **33**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **3**
- Bideoak: **27**

## Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Euskararen biziberritzea Bortzirietan 1970-1990
- Gorka Lekarozen fondoa
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

## Hizlariak

### **Pello Aldaz Fernandez** (1945)



Urritzan (Azpikoetxean) jaioa. Aita Urritzakoa zuen eta ama, berriz, Santander aldekoa (ez zuen euskaraz ikasi). Hiru semetan zaharrena, hamazazpi urtetan Alpeetara joaten hasi zen bederatzi-hamaika hilabetez bertan lanean aritzera; hala egin zuen bederatzi urtean zehar -ondoren, Irurtzungo fabrika batean aritu zen erretiratu arte—. Ordurako, etxeko euskara atzendua zuen, Urritza herri erdaldundua izaki, baina hango euskaldunekin (ezkurrarrak nagusiki), berreskuratu egin zuen, eta horri eusten dio, seme-alabei ere transmititu egin baitie.

### **Jose Bailon Mestres** (1920)

Muskitzen (Imotz) jaioa 1920an. Gurasoak Iruñeko Inkulsiun haziak ziren.



### **Jose Antonio Garbizu** (1943)

Imotz Udalerriko Muskitz herrikoa.

### **Pakito Iriarte** (1935)

Urritzarra. Nekazaria; pentsu, alfalfa eta egur tratutan ibilitakoa. Soldaduska Donostian egin zuen. Aita, Juanito Iriarte, Basaburuko Itxason jaioa zen eta bertotan ibili zen. [Pello Aldaz](#)ekin batera egin zitzaion elkarrizketan Pakitoren arrebak eta Jexux Mari anaia kaputxinoak ere parte hartu zuten.



### **Mikel Legarra Legarra** (1964)

### **Patxi Olaetxea Iturralde (1922)**

Imotz bailarako Goldaratz herrian jaio zen 1922. urtean, Loperena baserrian. Aita Larraun bailarakoa zuen, ama Imozkoa. Baserriko lanetan jardun zuen urte luzez lurra landuz eta abereak zainduz (behiak, behorrak eta ardiak). Ehizan ere aritutakoa da. Zenbait urtez Irurtzunen ere bizi izandakoa da, eta azken urteetan Iruñean. Elkarrizketan bere anaia Manuel Olaetxea ere agertzen da (Goldaratz, 1926).

### **Migel Mari Urriza Urriza (1926)**

Urritzan (Imotz) jaioa 1926an. Ama Urritzakoa bertakoa zuen eta aita, berriz, Basaburukoa, Beramendikoa.

### **Candido Ziganda Rienda (1949)**

1949an Oskotzen sortua, herriguneko Zamargiñenea etxean. Aita Beuntzakoa (Atetz) eta ama Oskozkoa, etxekoa, biak nekazariak. Lau seme-alabetan (haurtzaroan hildakoa kontuan hartu gabe) zaharrena eta ezkongabea. Haurtzaroan aitari laguntzen hasi zen, ardiekin eta bestekin. 15 urte zituela, nekazari guztien artean kooperatiba sortu zuten etorkizuna hobetzeko, eta Candido hartan hasi zen lanean, artzain gisa. Hori zela eta, geroago Andimendiara bolara luzeak pasatzera joaten hasi zen, herriko beste artzain zaharrago batekin batera. Oskotz kontzejuko alkate ere izan zen 4 urtez.



## **Pasarteak gaika**

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## **Transkripziorik gabeko pasarteak**

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### **1. Kokilak arbola-zulatzaille (IMO-002/002)**

Goldaratz inguruan kokilak (okilak) ikusten ziren. Kokilek enbor zaharrak zulatu eta zulo horietan egiten dute habia. Badira zenbait klase, adibidez kokil beltza eta kokil horia.

### **2. Muxarrak harrapatzen zituenekoa (IMO-002/004)**

Patxik muxarrak (katagorriaren itxurako beste animalia txiki bat) harrapatzen zituen gaztea zela. Muxarrek lo egiten dute negu osoan eta udazkenean jan eta jan egoten dira, loditzeko. Patxik tranpen bitartez harrapatzen zituen eta etxean izaten zituen. Sagarra eta ogia ematen zien jateko. Jateko gozoak dira.

Muxarrak lodi-lodi egoten dira garai horretan eta koipe hori medikuntzan erabiltzen zen, minak sendatzeko.

### **3. Patataren "eskarabajoa" (IMO-002/006)**

Gerra ondoren patata berria iritsi zen Euskal Herrira, patata alemana. Patata klase berri horrekin batera patata-zomorroa ere iritsi zen, ordura arte gure artean ezezaguna zena eta izenik ere ez zeukana, eta harrezkero "eskarabajo" izenez ezaguna dena.

### **4. Urteberriko koplak Imotzen (IMO-006/001)**

Urteberri egunean Imotzen kantatzen ziren koplak: "Urteberri egun ona, egun onaren señaia...".

### **5. Muskitz: Urteberriko koplak Imotz eta Txulapaingo mugetan (IMO-007/001)**

Gabonetan kantatzen zituzten hainbat koplak kantatzen ditu.

### **6. Muskitz: Urteberriko koplak... bigarrenez (IMO-007/002)**

Urteberri egunean kantatu ohi ziren koplak zatiak kantatzen ditu.

### **7. Mikelen aurkezpena eta euskalgintzarekin izan zuen harremana (IMO-012/001)**

Goldaratzen sortu zen Mikel eta 14-15 urte zituela joan zen Arantzara osabarekin bizitzera. Berako eskola profesionalean ikasi zuen 2 urtez eta Irungo institutuan 3 urtez. 5 urte horietan, kultur asteen antolaketan hartu zuen parte. Irungo AEKn alfabetatu zen eta hango irakasle batzuen lagun egin zen. Hala, Bortzirietan euskararen alde zerbait egin behar zutela pentsatu zuten, Bera eta Lesaka nahiko erdaldunak baitziren eta bertze 3 herrietan hutsune handia baitzegoen alfabetatzearen inguruan. Gisa horretan, gau eskolak antolatu zituzten Bortzirietan. 10 bat urte eman zuen Mikelek horretan lanean; garai intentsuak izan ziren.

### **8. Euskaltegia abiatzeko zailtasunak (IMO-012/002)**

Euskaltegia antolatzeko momentuan, hasieran zailtasun handiak izan zituzten; lehenbizi, lokala harrapatzeko. Lesakan, Alondigan hasi ziren; Beran, kultur etxean; Arantzan eta Etxalarren, erretoreak utzitako lokal batean; eta, Igantzin, eskolan. Irakasleak erakartzeko ere lanak izan zituzten, baina, hondarrean, 90 bat lagunek eman zuten izena. Irakasleak harrapatzea ere kosta zitzaien. Gainera, zailtasun ekonomikoak izan zituzten, euskaltegia defizitarioa baitzen.

### **9. Euskaltegiko zailtasun gehiago (IMO-012/003)**

Ikasteko metodologia komunikatiboa garatu zuten euskaltegian. Metodologia berria zen eta jendeak lanak izan zituen hori ulertzen, baita irakasleek ongi prestatzen ere. Irakasleen soldatak hagitz baxuak ziren.

### **10. Barnetegiak (IMO-012/004)**

Euskaltegiaren 2. urtean, udako barnetegiak antolatzen hasi ziren; ez bakarrik Bortziri mailan, baizik eta Euskal Herri osoari begira. Eskualdean, Lesakan, Arantzan, Etxalarren, Beran, Donezteben... antolatu zituzten barnetegiak. Udako ikastaro haietan, 2-3 astez etortzen ziren irakasleak, eta den-dena

antolatu behar zen horretarako. Antolaketa hori nola izaten zen azaltzen du Mikelek. Ehundaka jende pasatu zen barnetegietatik.

### **11. Ikasle talde heterogeneoak (IMO-012/005)**

Taldeak osatzeko orduan, zailtasun handiak izaten zituzten mailari zegokionez; talde hagitx heterogeneoak izaten baitziren. Barnetegietan hori ez zen hain arazo handia; jende aunitz joaten zenez, ikasleak hobeki sailkatzen ahal ziren.

### **12. Ikasleen motibazioa (IMO-012/006)**

Euskaltegira hurbiltzen zirenen motibazioa ezberdina izaten zen: batzuek lanean euskararen beharra sentitzen zutelako ematen zuten izena, baina gehiengoa militantziagatik joaten zen.

### **13. AEKren haustura (IMO-012/007)**

Barnetegiak lehenbizi AEKren eskutik antolatzen ziren, baina haustura eman zelarik, IKAREN izenean antolatzen segitu zuten. Haustura horrek momentu gogorak ekarri zituen. Zailtasunak zailtasun, eskualdeko irakasleak batuta jarraitu zuten eta ez zuen irakaskuntzan berean eraginik izan.

### **14. Bortzirietako elkarketa eta ahalduntzea (IMO-012/008)**

Garai hartan, Bortzirietako 5 herriek elkarrekin lan egiteko ohitura guti zuten, eta euskaltegiaren proiektuak horretan pausoak ematen lagundu izana nabarmentzen du Mikelek. Gainera, jendea alfabetatu izanak euskararekiko ahalduntze gisakoa ekarri zion jendeari, eta hori garrantzitsua izan zen momentu hartan.

### **15. Beran euskal etxea sortzeko saiakera (IMO-012/009)**

Euskaltegiak bazuen azpiegitura arazo bat, beti lokalak eskatzen aritzen baitziren. Horri irtenbidea emateko, Matxinbeltzeneako proiektua sortu zuten. Halere, hori baino lehen, Beran euskal etxea sortzen saiatu ziren, euskal giroa eta euskararen inguruko zerbitzuak biltzeko. 1988An, Berako Udalak proiektu hori aitzinera eramateko leku bat ematea onartu zuen. Baina hori luzatzen joan zen eta bidean Matxinbeltzenearen aukera atera zenez, bertan garatu zuten gogoan zuten proiektua.

### **16. Matxinbeltzenea baino lehen, mankomunitatea (IMO-012/010)**

Matxinbeltzenea baino lehen, mankomunitatearen sorrera izan zen, azpiegitura baino lehen, garrantzitsua baitzen instituzionalizazioa.

### **17. Matxinbeltzenea martxan paratzea (IMO-012/011)**

Matxinbeltzenea ilusio handiarekin sortu zuten, eta auzolanean lan aunitz egin zen. Euskararen erreferente izanen zen euskaltegia sortu nahi zuten, baita aisialdirako ostatu eta jatetxea ere, diru-iturri bat izateko. Hala, euskaltegiak eta barnetegiak toki fisiko bat izan zuten.

### **18. Euskaltegian militantzia eta giro ona (IMO-012/012)**

Lehen, ezinezkoa zen euskaltegitik bizitzea, ez zegoen horretarako dirurik. Horretan lan egiten zutenak militantziagatik egiten zuten, baita aisialdi, harreman eta giro onagatik ere.

## **19. Euskaltea nekagarria baina aberasgarria (IMO-012/013)**

Euskaltegian aritzea nekagarria izan zen, baina hagitz aberasgarria ere bai, unibertitate gisakoa. Gaizki egindako gauzak ere egon izanen zirela aipatzen du Mikelek.

## **20. Mugari aurre egiteko elkarte (IMO-012/014)**

Kontuan hartuta mugaren gainetik euskarak herritarrak elkartzen dituela eta mugak sortzen dituen distantziak tikititu nahian, elkarte bat sortu zuten Sara, Zugarramurdi eta Bortzirietako euskaltegien artean. Elkarte hark euskararen inguruko besta erraldoi bat planteatu zuen: Akelarre. 1988an hasita, 4 urtez antolatu zuten besta hura. Helburua muga administratibo-politikoari aurre egitea zen, euskara erdigunean paratuta.

## **21. Euskara eta euskaltea presente (IMO-012/015)**

Elkartearen bidez, hitzaldiak eta bertze hainbat ekitaldi antolatzen zituzten ikasturtean zehar, eta ikasturtea hasi baino lehen, kontzertuak ere antolatzen zituzten. Horrek guziak lan handia ematen zuen, baina trukean, euskara eta euskaltea presente zeuden jendearen mingainetan.

## **22. Eguraldi txarra medio, dirua galtzea Akelarren (IMO-012/016)**

2 urtetan, urteko besta nagusia, Akelarre, gaizki atera zen eguraldia zela eta. Dirua galdu zuten egun hartan, eta bertze besta bat antolatu zuten horri aurre egiteko. Ikasle aunitzek parte hartzen zuten euskaltegiak antolatutako jardueretan.

## **23. Euskaltea Lesakako Nafarroa Oinez (IMO-012/017)**

Euskararekin zerikusia zuen ekintzetan parte hartzen zuen euskaltegiak: Korrika, Nafarroa Oinez... Lesakako Nafarroa Oinez kasua aipatzen du Mikelek

## **24. D eredia ez da aski (IMO-012/018)**

Garai hartan, politikari eta jende batzuek erraten zuten euskalduntzea bermatua zegoela ikastolarekin eta D ereduarekin. Baina euskaltegian ez zuten hala ikusten, haurrak heldua izan nahi baitu, eta helduak gaztelaniaz solastatzen badira, haurrak ere hala eginen dute. Beraz, euskararen gaia bere osotasunean jorratu beharra zela pentsatzen zuten.

## **25. Egunkaria eta Berriaren sorrera (IMO-012/019)**

Egunkariaren sorreran ere aritu zen Mikel, baita Berriaren sorreran ere.

## **26. Euskara mankomunitatearen sorrera (IMO-012/020)**

Euskara mankomunitatea euskararen gaiari organo juridikoa eta azpiegitura emateko ideiatik sortu zen. Garai hartan, Tolosan bazegoen euskara zerbitzua, eta hura aztertu zuten ea Bortzirietan eredu hura aplikagarria zen ikusteko, baina hura udal bakarra zen, eta Bortzirietan 5 udal ziren. Hortaz, zerotik asmatu behar izan zuten eredu berri bat; horrek lan handia ekarri zuen. Batzar aunitz egin zituzten hainbat eremutan, eta zailtasun handiak izan zituzten denen nahiak, gogoak eta abarrak uztartzeko, eredu berria sortzeko.

## **27. Mankomunitatea sortzeko zailtasunak (IMO-012/021)**

Poliki-poliki joan ziren mankomunitatearen ideia garatzen. Udalak mankomunitatearen proiektuaz maiteminarazi nahi izan zituzten, baina aunitz kosta zitzairen; udal batzuek errezelo handiak zituzten. Zailtasunak zailtasun, mankomunitatea sortzea lortu zuten; beheitik goiti sortua izan zen eta euskalgintzarekin lotutako organo bat osatu zuten. Hala, mankomunitatea sortuta, euskaltegia eta Ttipi Ttapa haren bidez egituratu ziren, eta Matxinbeltzenea ere horren ondorioz sortu ahal izan zuten.

## **28. Goitik beheitiko ereduaren alde txarra (IMO-012/022)**

Nafarroako Gobernuak Bortzirietako eredia probestu eta goitik beheitiko langile sare bat osatu zuen, bere menpekoa. Horrek, azpiko lan soziala eta aktibismoa bertze maila batean utzi zituen.

## **29. Mankomunitatean, denon ikuspuntuak uztartzea (IMO-012/023)**

Mankomunitatearen sorreran, orduko Arantzako alkateak, Josu Larretxeak, paper garrantzitsua izan zuen. Bertze udaletako hautetsiek ere lan egin zuten, baina denon ikuspuntuak uztartzeak zailtasunak ekarri zituen.

## **30. Gibelera begira (IMO-012/024)**

Gibelera begira, bizitakoa garai hagitz intentsua izan zela aipatzen du Mikelek, eta kontent dago egindako lanarekin.

## **31. Euskararen egungo egoera (IMO-012/025)**

Egun, euskararen gaia instituzionalizatu izanaren ondorioz, desaktibazio soziala nabaritzen du Mikelek. Bertzetik, lehen erdara ez zegoen lekuetan erdara sumatzen dela aipatu du, eta, alderantziz, erdara zegoen lekuetan euskara. Euskararen gaia modu oso eta orokor batean lantzeko beharra ikusten du Mikelek.

## **32. Euskararen alde egiteko arrazoiak (IMO-012/026)**

Heldua zelarik, euskarak ez zuela deusetarako balio erran zioten, eta horrek hizkuntzarekiko kontzientzia biztu zion. Gainera, bere nortasunaren oinarrian euskara dagoela erraten du Mikelek. Horrek guziak euskararen alde egitera bulkatu zuten.

## **33. Euskararen legea, erdararen alde (IMO-012/027)**

Garai hartan atera zuten euskararen legea zaplazteko bat izan zen euskalgintzarako Mikelen ustez. Euskararendako beharrean, erdararendako egin zen lege hura.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-04-04*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com